

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2015/11/24

Saila	Laburpena	Erantzuna
Alkatetza	Batek eskatu du organigrama argitaratzeko, gestioak egiteko orduan zein sailetara jo behar den jakiteko.	Udalaren web orrian, berariazko atal bat sortu dugu eta bertan azaltzen dira sail bakoitzaren funtzioak. Hortxe aurki daitezke telefono-zenbakiak eta departamentuetako arduradunen izenak. Gainera, Pegora herritarren zerbitzurako bulegoan emango dizute Udaletxean egin nahi duzun edozein tramiteren gainera informazioa.
Alkatetza	Eskatu du Jardiñetako irisgarritasun- eta mugikortasun-plana egiteko.	Aztertzen ari gara
Alkatetza	Batek eskatu du Udalaren web-orriara bileren aktak igotzeko eta egindako eskaeren eta iradokizunen segimendua egiteko.	Oraingoan, abuzturako udalaren web-orrian argitaratu dira auzokideen kexak, iradokizunak eta proposamenak biltzen dituzten auzo-bileren aktak eta baita horiei eman zaizkien erantzunak ere.
Alkatetza	Auzokide batek eskatu du Eibarko kaleren bati "Miguel Gallastegui" izena jartzeko.	Ego Ibarra batzordea Eibarko kale-izendegiari eta kaleei izenak jartzeko prozedurari buruzko ikerketa bat egiten ari da.
Alkatetza	Auzokide batek eskatu du Bidebarrietako lorategietako bustoari idulkia —gaur egun Sakunen dagoena— jartzeko.	Familiarekin hitz egin zen eta ondorioztatu zen bustoa ondo dagoela dagoen tokian eta idulkirik gabe.
Alkatetza	Eskatu du berriz jartzeko Errebaleko iturri zaharra.	Iturria gordeta dago. Arkitektoek erabaki behar dute etorkizuneko Errebalgo gunen berriari jartzerik dagoen ala ez, eta, bertan ezin dela jarri erabakitzen badute, beste tokiren bat bilatuko da iturriarentzat.
Alkatetza	Batek eskatu du abiadura 30km/h-ra murrizteko Jardiñetan.	Bertan seinale berriak jarri dira. Abiadura 30km/h-ra murrizten duena eta oinezkoen lehentasuna ematen dietenak.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2015/11/24

Saila	Laburpena	Erantzuna
Alkatetza	Auzokide batek eskatu du beste alderdi politiko batzuen ordezkaritza auzoetako bileretan.	Auzoetako bilerak Gobernu taldeak antolatzen ditu, eta batzarretan departamentuetako arduradun teknikoen laguntza izaten du; izan ere, Gobertu taldeko kideek eta teknikariek dituzte kexei erantzuna emateko autoritatea eta bitartekoak. Edonola ere, beste alderdietako zinegotziak publiko gisa bertaratu daitezke, bilerak irekiak baitira.
Alkatetza	Arragueta kaleko hirigintzako plana ezagutu nahi du.	Udal webgunean ikusgai dagoen Hiria Antolatzeko Plan Orokorra begiratu daiteke. Hirigintza Sailera joanda ere kontsultatu daiteke.
Alkatetza	Geltoki intermododala Estaziñoaren ondoan jartzea iruditzen zaio bati aukerarik onena.	2016ko aurrekontuetan Eibarko EH-Bildu taldearekin adostu zen emendakin baten ondorioz, herritarren parte-hartze prozesu bat garatuko da kokaleku guztien artean autobus geltokiarentzat hoberena zein den erabakitzeko.
Alkatetza	Baten kexa hauxe da: ez da agindutakoa bete, eta, ondorioz, erdigunea herriaren goiko partera trasladatu da.	Ez gatoz bat hausnarketa horrekin; izan ere, azken urteetan inbertsio handiak egin dira hiriaren ekialdean. Errebaleko proiektuak protagonismoa itzuliko dio.
Hirigintza	Eskatu du El Casco etxeko euri-uren zorrotanak konpontzeko, oinezkoak busti egiten ditu eta.	Espedientea abiarazi da, teknikari batek ikuskapena egin dezan. Erretenak garbitzeko agindu da eta dagoeneko egina dago.
Hirigintza	Errekatxurako aurreikusitako hirigintzako garapenaren gaineko informazioa eskatu du batek; izan ere, 1, 3 eta 5 zenbakiak antolamendutik kanpo daude.	Eraikin horiek antolamendutik kanpo daude, plangintza bat dagoelako onartuta gune horretarako, baina krisia dela eta, ez zen gauzatu Orio eraikuntza-enpresak aurkeztutako proiektua. Alkateak izan zuen geroago bilera bat bertako auzokideekin, eta konpromisoa hartu zuen Errekatxu kaleko arazo zehatza aztertzeko.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2015/11/24

Saila	Laburpena	Erantzuna
Hirigintza	Kexa hau adierazi du batek: Toribio Etxeberria 19 inguruko tabernen terrazetako mahaiek ia espaloi osoa hartzen dute, eta ez dute oinezkoak pasatzeko lekurik lagatzen.	Orain arte indarrean zegoen ordenantza aldatu egin da. Mahaien eta aulkien kokapena aldatua izan da eta betearazi egiten da.
Obrak	Auzokide batek informazioa eskatu du Blas Etxeberria kaleko transformadorea lekuz aldatzeko epeen inguruan.	Errebaleko obrak amaitutakoan kenduko da; 2018aren erdialderako aurreikusten da.
Obrak	Batek eskatu du Pagei 3ko espaloia izkina hobetzeko, aldats handia daukalako eta kutxatila-tapa asko.	2017 urtean pasabide goratu bat egingo da aldatsa leuntzeko.
Obrak	Zera eskatu du: Bidebarrieta 19 eta 21era iristeko arrapala bat egitea.	Aztertu da, eta hainbat alternatiba baloratzen ari gara.
Obrak	Batek galdetu du 11 eta 17 zenbakien arteko Bidebarrietako lorategietako obraren hasieraren inguruan.	Lanak 2015eko abenduan hasi ziren eta maiatzean amaitu ziren.
Obrak	Batek galdetu du noiz egin behar den Jardiñetarako igogailua.	Agintaldi-planean aurreikusita dago igogailuak jartzea Jardiñeta 29-31ra, 31 eta 35era eta Jardiñeta-Errebalera 2017-2018 urteetarako. Proiektuetako lehena (Jardiñeta 29-31) aurten idatziko da.
Obrak	Salatu du badirela Jardiñetara iristeko bide-zatiak espaloirik ez dutenak.	Ikerketa bat egiten ari da bertako irisgarritasuna hobetzeko. Horrela, horren emaitza dugunean hemendik hilabete batzuetara, irtenbide iraunkorra hartu ahalko da gaur egun kalea dagoen moduan ezin delako irtenbiderik hartu. Hartutako erabakia El Casco eraikinaren garapenarekin bateragarria izan beharko da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2015/11/24

Saila	Laburpena	Erantzuna
Obrak	Jardiñeta 7ko auzokide batek kexa adierazi du auzorako sarbide eskasengatik.	Ikerketa bat egiten ari da bertako irisgarritasuna hobetzeko. Horrela, horren emaitza dugunean hemendik hilabete batzuetara, irtenbide iraunkorra hartu ahalko da gaur egun kalea dagoen moduan ezin delako irtenbiderik hartu. Hartutako erabakia El Casco eraikinaren garapenarekin bateragarria izan beharko da.
Obrak	Ohartarazi du Txomoko parke azpiko garajeetan hezetasun-arazoak daudela.	2016ko aurrekontuan sartuta dago Txomoko plazaren berrurbanizazioa (goiko partea).
Udaltzaingoa	Baten kexa da erdigunean bizi direnek beren txakurrak Jardiñetara eramaten dituztela eginkariak egitera.	Herritarrak nahi duten tokietatik ibil daitezke. Ez dago araudirik debekatuko duena San Juan kaleko bizilagun bat, esaterako, Jardiñetara joatea txakurrarekin. Araudiak derrigortzen du kaka jasotzera eta txakurra kontrolatuta izatera.
Udaltzaingoa	Batek salatu du garbitasun-falta, jendeak zaborra ateratzen duelako edukiontzietatik inolako zigorrik jaso gabe.	Edukiontzietatik zaborra ateratzen duten pertsonak identifikatzeko agindua du pertsonalak. Identifikatzen direnean, zigor-espedientea abiarazten da. Bi espediente ditugu zabalik.
Udaltzaingoa	Eskatu du Jardiñeta kaleko 29 eta 31 zenbakien artean dauden asiako liztorrak kentzeko.	Gune horretan ez dago asiako liztorren habiarik. Liztorrak inguratzen dira landareek dituzten fruituengatik, baina landareak gune pribatu batean daude. Jabeari huntza mozteko agindu zitzaion.
Udaltzaingoa	Jardiñetako auzokide batek adierazi du ez dela irtenbide egokia izan STOPa aurreratzea Ibar-Gaineko bidegurutzetik Matsariara. Horrela ere ikuspen urria dagoela dio.	Autoa geldituta eta STOP eginda, inolako arriskurik gabe atera daiteke.
Udaltzaingoa	Batek eskatu du zaintza areagotzea Muzategi 1 eta 7 bitartean.	Bai Udaltzaingoak, bai Ertzaintzak ondo ezagutzen dituzte gune horretan sortzen diren arazoak, eta ahalegintzen dira horien jarraipena egiten.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2015/11/24

Saila	Laburpena	Erantzuna
Udaltzaingoa	Muzategin zaintzarako kamerak jartzeko eskatu du, segurtasun handiagoa egon dadin.	Ez da Udaltzaingoaren eskumenekoa kontrolerako kamerak jartzeko espedienteak tramitatzea: Datuak Babesteko Agentziarena da. Kamerak jartzeko jarraitu beharreko urratsei buruzko informazioa eman zaie eskatzaileei.
Udaltzaingoa	Batek salatu du kotxeak arrastoak eginda agertzen direla Bidebarrieta kaletik Urkizuraino, ostiraletik larunbaterako eta larunbatetik iganderako goizaldeetan. Zaintza areagotzeko eskatu du.	Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren patruilak ibiltzen dira inguru horretan, eta, azkenaldian, ez dugu izan kexan adierazten diren bezalako kalteen berri.
Udaltzaingoa	Jardiñetako auzokide bat kexatzen da auzoan aparkatzeko dagoen arazoaz, Hizkuntza Eskola eta autokarabanak direla eta.	Hizkuntza Eskolara joaten direnek eskubidea dute, gainontzeko herritarrek bezala, Jardiñeta kalean dauden aparkaleku publikoak erabiltzeko. Autokarabanei dagokienez, ez dago aparkatzea debekatzen duen araudirik, berariaz aparkatzea debekatuta ez dagoen lekuetan. Udalaren araudiaren arabera, autoa hilabetez eduki daiteke, gehienez ere, mugitu gabe.
Zerbitzuak	San Andres elizaren irteeran argi gutxi dagoela salatu du batek.	Argizteriarren aldaketa bat egiten ari da parkearen obrekin batera.
Zerbitzuak	Batek honako kexa hau adierazi du: Jardiñetara ematen duten eskailera mekanikoak matxuratuta egoten dira askotan. Mantenu-lana areagotzeko eskatu du.	Abisua Thyssen enpresari helarazi diogu, jakinaren gainean egon dadin.
Zerbitzuak	Muzategiko auzokide batek garbitasun-arazoak salatu ditu, 1 eta 7 zenbakien artean.	Mankomunitateari pasatu diogu abisua. Begiratuko da ea benetan dauden adierazi diren garbitasun-arazo horiek, eta, horrela bada, garbiketa areagotuko da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2015/11/24

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Batek salatu du garbitasun-falta Muzategitik Jardiñetarako eskailera mekanikoetan, batez ere, asteburuetan.	Eskailera mekanikoak hilean behin garbitzen dira. Hurrengo lizitazioan aldatuko da maiztasun hori.
Zerbitzuak	Jardiñetan garbiketa handitzea eskatu du batek. Uste izatekoaren azpitik dagoela dio.	Garbiketaren maiztasuna ohikoa da auzo guztietan. Lurrean ez da antzeman zaborrik.
Zerbitzuak	Bidebarrieta 24ko auzokide batek eskatu du atzeko parteko sastrakak kentzeko.	Lursail pribatua da; beraz, ez dagokio Udalari hura garbitzea. Hala ere, jabeari eskatu zaio garbitzeko; izan ere, ez zituen betetzen segurtasun-, osasungarritasun- eta apaingarritasun-baldintzak. Espedientea dauka abiarazia eta bere aldetik garbiketa egin ez denez, Udalak enpresa bat kontratatu zuen garbiketa hori modu subsidiarioan egiteko.
Zerbitzuak	Auzokide batek salatu du saihesbidearen Jardiñeta eta Matsaria arteko tartea argi barik dagoela aspalditik.	Aldundiari pasatu zitzaion abisua, eta konpondu ziren erretako luninariak.
Zerbitzuak	Ohartarazi du haize-makinak kaleko zaborra zabaldu egiten duela eta lorategietan pilatuta uzten duela.	Mankomunitateari abisua pasatu zaio, eta esan digute asko azpimarratzen dela kontu handiagoz ibiltzeko. Berriz ere azpimarratuko dute.
Zerbitzuak	Bat kexatu da San Andres Ikastetxe pareko edukiontzi marroiak ez duelako funtzionatzen.	Mankomunitaterai esan diogu. Jada aldatuta dago, eta ondo funtzionatzen duen bat dago jarrita.
Zerbitzuak	Jardiñetako auzokide batek eskatu du Sakun hobeto garbitzeko eta txukuntzeko. Gainera, leku horretan gazteek boteloia egiten dute.	Mankomunitateari esan diogu, eta adierazi digute igandero garbitzen direla arazo hori dela-eta identifikatuta dituzten hainbat puntu. Beraz, leku hori ere erantsi da. Bestalde, lan-agindua egin da, eta kartelak jarri dira txakur-kakak jasotzeko kontzientzia sustatzeko.
Zerbitzuak	Auzokide batek adierazi du Orbea kirodegiko poltsa-makinaren jasotzeko gunea oso behean dagoela.	Makina hori Untzagan dagoenaren eta Mankomunitateak jarri dituen guztien berdin-berdina da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Erdialdea-barrena

DATA: 2015/11/24

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Eskatu du mahukarekin garbitzeko Jardiñeta 29 zenbakitik 35era.	Pasatu zaio abisua Mankomunitateari. Haiek esaten dute behin baino gehiagotan egin dutela eta garbi dagoela. Eskailera tarte bat desugertzeko makinarekin ere pasatu zutela. Baliteke, arazoa hori izatea, eta nahi izatea makina horrekin eskailera guztiak pasatzea. Presioko makina ahalik eta lasterren pasako da.